

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2007ko ASTE SANTUA

2007ko Aste Santuan eta Pazko-astean bidaiarien sarrerak %5,2 gehitu dira eta igaro dituzten gauak %4,6

Nekazalturismoei dagokienez, %14,4 gehitu dira igaro dituzten gauak, baina bidaiariak %3,8 gutxiagotu dira.

EUSTATen datuen arabera, Aste Santuko astelehenetik Pazko-asteko ostiralera bitartean 73.621 bidaiari izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko **hoteletan**. Bidaiarien sarrerak %5,2 gehitu dira, hau da, aurreko urtean baino ia 4.000 pertsona gehiago izan da.

Bestalde, bidaiariak 145.873 gau igaro dituzte; hots, 2006. urteko aldi berean baino 6.000 gau gehiago igaro dituzte (%4,6tik gora).

Bidaiari bakoitzaren batezbesteko egonaldi kopurua, aurreko urteekin erkatuta, pixka bat gutxiagotu da; hain zuzen, aurreko urtean bidaiari bakoitzak batez beste 1,99 egun egin zituen eta aurten 1,98 egun.

Plazen okupazioa aurreko urteko maila baino %2,1 txikiagoa izan da. 2006. urtean indize hori %51,83koa izan zen eta 2007ko aldi berean %50,75koa.

4.891 bidaiarik **nekazalturismoak** aukeratu dituzte, 2006ko aldi berean baino %3,8 gutxiago. Guztira 17.485 gau igaro dituzte nekazalturismoetan, aurreko urtean baino %14,4 gehiago. Igarotako gau kopuruak etorritako bidaiari kopuruak baino bilakaera hobea izatearen arrazoia bidaiari bakoitzaren batezbesteko egonaldia handitu izana da; izan ere, batezbesteko egonaldiak luzatu dira: aurreko urtean 3,01 eguneko egonaldiak ziren eta aurtengo Aste Santuan 3,57 egunekoa. **Nekazalturismoetan** plazen okupazioa pixka bat handitu da, %1,7, hain zuzen ere.

Taula: Aste Santuko emaitzak 2006-2007

	OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUAK			NEKAZAL TURISMOA		
	2007	2006	Δ %	2007	2006	Δ %
GAUALDIAK	145.873	139.473	4,6	17.485	15.287	14,4
BIDAIARIEN SARRERAK	73.621	69.983	5,2	4.891	5.083	-3,8
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,98	1,99	-0,5	3,57	3,01	18,7
BETETZE-MAILA PLAZAKA	50,75	51,83	-2,1	43,92	43,18	1,7

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es